

Ignazio Aiestaran Uriz

Misterioaren pentsamendua

Norbait hil denean, zer da gogoratzen duguna? Hautsa eta errautsa garenok, honako haragi hilkorra garenok, zer mantentzen dugu kolkoan? Filosofoak zerbait adierazi ahal du heriotzaren tenorean? Entzun dezagun zer dioen pentsalariak:

Hilobi bakoitza historia bat. Misterio bat. Misteriora bidaia baten historia bat. Jaiotzeak heriotza zor duela, anaia zaharragoari entzun nion behin, gaztetxo: orduan inpresio egin zidan esaldiak. Gero grekoetan behin baino gehiago irakurri izan dudalarik, Alemanian ere jende xumeari entzun diodalarik, esaldiak beti harritzen nau.

Joxe Azurmendiren hitzak dira, JAKINEN plazaratuak, Victor Hugoren etxea Pasaian dagoelarik. Oso ezaguna ez den artikulu hori gomen-datuko nioke haren azken hausnarketara hurbildu gura lukeenari. Biografikoa bezain filosofikoa, jaiotzetik hilobiraino misterioduna. Grezian zein Euskal Herrian gogoeta bera, inbariante bera, zehaztuko luke Alain Badiouk, termino matematiko-ontologikoa dela bide. Misteriotsua. Misteriora bidaia. Bizitza oro enigma da. Misterioa da inbariante hori; alta, bizitza bakoitza ezberdina da. Eternala hemengoa da, edo hangoa. Nondik dator misterioa? Hitza bera misterioz beterikoa da. Latinoek *mysterium*. Grekoek *mysterion*, *μυστήριον*, *myeō*, *μυέω*, begiak eta ahoa ixtea isilpeko inimizazioan, doako agerkundearen sarbide sekretuan, bizitza hobeto trenkatzeko.

Izatearen misterioa, tokian tokiko enigma. Zer da isla, eta zer errealtatea, hilobiak, monumentuak, museoak, etxeak, herriak, hiriak bisitatzeko ditugunean? Berririo Azurmendiren berba delikatu eta burutsuak:

Zertarako bisitatzen dugun benetan Florentzia, edo zer den bilatzen duguna San Marco-n, sentitzen dugun emozioa Ufizzi-etan, Eskiloren drama baten irakurketan, arras beste zerbait da, mentalitatea zabaltzeko gimnasia bat baino. Hiri bakoitza, pentsamendu,

arte obra bakoitza, paisaia bakoitza, lehen-lehenengo, bera dena da eta bera denagatik hartzen dugu aintzat, huraxe gurtzeko edo, esango nuke, ez gure 'probetxuren' baterako. Batzuetan metafora platonikoak lagungarri dira eta, esan genezake, Kristellerrekin, haietako bakoitzak ideia edo esentzia espezifiko eta bakar bat aurkezten duela gure begien aurrean, kontenplatua eta geure baitan asimilatua izatea merezi duena –eukaristia modu batean–, beste gabe. Hor dago bera, agerpen bat; hor egon dadila, nahi dugu, bakarra, ukiezina, bera den bezalakoxea, hara eta ez beste inora guk peleginatzeke behin, edo behin eta berriro, berarengana, doakotasun hutsa den askatasun eta eskerronean. Utilitate izpiritualena ere bilatzeko, ikustea hemen zaigun oparia baino soil-soil; hiri batek, pintura edo paisaia batek ikustea bat-batean bihurtzen duen miraria bizitzea alegia. Unibertsoa edo egia eternoa, zatika, mirariz mirari, baitaigu errebelatzen, Ernazimentuko burgotarrak deskubritu duen bezala. Guri Hugok agerian jarri digun bezala geure herri eta paisaiekin, jendearekin. Saramagoren, Hugoren ikustea horregatik interesatzen zaigu: partekatzeko. Haiekin ikusteko. Ikasteko ikusten. Errebelazioan sartzeko haien jarraian gu ere.

Aditu duguna hilezkortu nahi genuke, behatu duguna ezilkortu gura genuke, baina alferrik, ezin dugu, agerpena desagertzen da, laguna hiltzen da, unibertsalaren eta partikularren arteko dialektikan. Azurmendi misterio horren pentsamendua da: irakaskuntzarik handiena, berak oparitu ziguna, misterio laiko, material, emankorra, giza-bere kooperatibo mintzoduna eta bere abegiaren aberria, Arantzazuko paisaian harkaitzak, Erriberan hitz berdeak, Agiñan eskultura zirkularra, Zegamako kale batean ugazabak utzitako langile hila, metafisikarik gabeko metafisika xumea, hausnarrean Kolonian zein Donostian, pentsatzen irakatsi zigun filosofia, geure burua hausnartzen irakatsi ziguna. Jaiotzeak heriotza zor, guk ere zu zor. Esker anitz, Joxe, hainbestegatik. Adiorik ez.